

JARDUERA-PLANA

(22. ASTETIK IKASTURTE AMAIERARA)

Mekanika aplikatua

Ingeniaritza mekanikoko gradua
Industria elektronikoren eta automatikaren ingeniartzako gradua
Industria kimikaren ingeniartzako gradua

2020-04-17

Irakasgaiaren koordinatzailea
Gonzalo Carlos Gonzalo Alonso

AURKIBIDEA

1. Eduki teoriko - praktikoak
2. Metodologia
3. Ebaluazio-sistemak
4. Ohiko eta ezhoiko deialdiak: orientabideak

1. EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

Momentu honetan, irakasgai honetako 3. zatia ematen ari gara. Aurreko atakak (estatika eta zinematika) ebaluazio jarraituen bidez ebaluatu ditugu.

Dinamika

- Indarrak
- Dinamikako oinarrizko legeak
- Partikularen dinamikako teorema: momentu linealaren teorema, momentu angeluaren teorema (indar zentralak aplikatuz), lanaren eta energiaren teorema (energia mekanikoa).
- Sistema mekanikoko oinarrizko kontzeptuak: barne eta kanpo indarrak.
- Sistemaren dinamikako teorema: momentu lineala, momentu angeluaren teorema, grabitate zentroen teorema, momentu angeluarren teorema, lana eta energiaren teorema.
- Sistemaren higidura ekuazio orokorrak.

2. METODOLOGIA

Irakasgaiaren klaseen banaketa hau da: magistrala (1 ordu astero), gela-praktika (1 ordu astero).

Egoera honetan, geratzen diren asteak irakas-denbora bukatu arte, klase magistralen zereginak mantenduko dira on-line baliabideak erabiliz. Gela-praktikak ere era birtualean ematen saiatuko gara.

2.1. IKASGELAKO KLASE MAGISTRALAK ETA PRAKTIKOAK

Arlo teorikoan, ikasgelan ematen ditugun eskoak unitate didaktikoen bidez ordezkatu ditugu. Unitate didaktiko bakoitza ordu bateko klasearekin erlazionatuta dago. Barnean, laburpen kontzeptuala eta ariketak daude teoria aplikatzeko. Prozedura hau gela arrunt batean aplikatzen dugu. Ikasleriak pdf formatoan izango ditu materiala, eta kurtso arrunt baten erritmoa jarraitzeko asmoarekin, astero publikatuko ditugu unitateak. Une honetan, 4 unitate argitaratuta daude. Unitate hauek azaldu ahal izateko irakaskuntza birtuala erabiliko dugu, Blackboard (BBC) erabiliz, besteak beste.

Arlo praktikoan, ariketen ebazpena argitaratuko dugu, atalez atal azalduz. Beste ariketa batzuk ebatzi gabe utziko ditugu, ikasleriak egin ditzaten. Denbora tarte bat utzi eta gero, ebazpen osoa emango dugu, eta irakaskuntza birtuala erabiliz, Blackboard (BBC), azalduko ditugu.

Komunikatzeko, hurrengo baliabideak erabiliko ditugu: egela plataforma, BBC, mekanika irakasgaiari lotutako web orria (www.vc.ehu.es/ingme), atal berri batean “egoera berezia” izenekoa.

Web orri honetan 1996 urtetik aurrera, irakasgai honetako azterketak jarrita daude ikaslerientzako. Halaber, klaseko apunte osoak daude eskuragarri.

Irakasgai honetako klaseak astelehenero eta asteartero izaten dira. Ordutegi hau errespetatuz (eguna eta ordua), ikasgela birtualak izango dira, BBC-ren bidez. Klase hauek oso praktikoak izango dira: bidalitako ariketak eta sortutako zalantzak argitzeko erabiliko ditugu.

Tutoretzak egin ahal izateko, online kontsultak erantzungo ditugu, emaila, edota BBC erabiliz.

2.2. MINTEGIAK

Irakasgai honetan mintegirik ez dagoenez, ez dago ezer azaltzeko.

2.3. LABORATEGIKO PRAKTIKAK ETA ORDENAGAILUKO PRAKTIKAK

Irakasgai honetan mintegirik ez dagoenez, ez dago ezer azaltzeko.

3. EBALUAZIO-SISTEMAK

Ebaluaketa sistema mantenduko da irakats gidan dagoen bezala agertzen den bezala. Dena den hemen egindako frogak eta egin beharrekoak aipatuko ditugu:

- Froga idatzia (80%)
 - o Egindako idatzitako froga partzialak (materia kentzekoak): Bektoreak, masen geometria eta estatika
 - o Egin beharreko idatzitako froga partzialak (materia kentzekoak): zinematika eta dinamika
- Ariketak, kasu praktikoak eta problemak (20%)

4. OHIKO ETA EZHOIKO DEIALDIAK : ORIENTABIDEAK

Irakasgaiaren ehuneko handia eman dugu dagoeneko. Guztira, 9 kreditu ECTS dira eta 2 kreditu bakarrik geratzen dira ikusteko. Honetaz gain, ebaluazioa jarraituaren notak ditugu, gaiko kontrolak eta azterketa dezente eginak daudelako.

Dena den, gure planifikazioa jarraituz, beste bi azterketa jarriko ditugu.

Zinematika: apirilaren 24a

Dinamika: maiatzaren 8a

denbora finko batean era birtualean egingo dira, e-gelaren zereginaren bidez. Ikasleek instrukzio garbi izango dituzte.

Mekanikako atal bat gainditu ez dutenentzat beste froga idatzi bat dago ohiko deialdian, irakasgidan agertzen den moduan eta ordutegi akademikoak esaten duen moduan baina era birtualean., e-gelaren zereginaren bidez.